

LEHENENGO ZATIA

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA

1. Aurkezpena

1.1 Programaren aipamen historikoa

Programa 1993an sortu zen. Hari ekiteko arrazoiak hurrengoak izan ziren, beste batzuen artean: eskolako porrot eta absentismoari buruzko datuak, aisialdirako aukera eza, portaera desegokiak garatzea, e. a. alde batetik; eta bestetik, egoera hori dela kausa, Kontsortzioa osatzen duten departamentuen kezka eta erakundeen arteko erantzun koordinatua eman nahi izatea.

1994an, Pasaian ezarri zen Programa estreinako aldiz. 1995ean Andoainen eta Zumarragan. 1997ko uztailan udalerrietarako deialdi irekia egin ondoren, Zarautz, Tolosa, Eibar eta Donostia gehitu ziren; Donostia banandu egin zen beranduago. 1998ko maiatzean, deialdi irekiaren bidez, Zumaia, Azpeitia eta Irun herrietara zabaldu zen programa pilotu gisa. Azkenik, 1999ko deialdian Billabona eta Hernani udalerrak sartu ziren programan.

1.2 Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programak bere barne hartzen duena

Programaren aurkezpen zehatza aurrerago egingo badugu ere, komenigarria deritzogu puntu honetan ondokoa azpimarratzeari:

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioak abiarazi nahi ¹ duen Inguru Irekiko² Hezkuntzako Planaren barruan egongo da.

Kontsortzioak esku hartuko du ondoko bi arloen barruan:

a) Heziketa konpentsatorioaren barruan.

Heziketa konpentsatorioa, zentzu zabalean, era honetan ulertzen dugu: pertsona taldeari/inguruari berriro egokitzea errazten duen hezkuntzako ekintzen multzo gisa, pertsonaren garapen edo sozializazio prozesuan etena gertatzen denean, hura gizartekotu ahal izateko.

b) Prestakuntza okupazionalaren barruan.

Prestakuntza okupazionala, berriz, heziketa konpentsatorio hertsia ren ekintza gisa ulertu behar da, pertsona taldeari/lan inguruari berriro egokitzea errazten duena, ordaindutako gizarte eginkizunak ikastea ahalbidetzen duena. Prestakuntza okupazionalako programak zabalagoak diren heziketa konpentsatorioko programekin lotu beharko lirateke kasu gehienetan.

Bai heziketa konpentsatorioaren inguruko ekintzek bai prestakuntza okupazionalaren ingurukoek, funtsean, esparru lokalean daukate zentzua (prestakuntza okupazionalako ekintzek eskualdeetan nagusiki).

¹ Agiri hau, Plana egiteko proposamena barne, Batzorde Teknikoaren proposamen gisa aurkeztuko zaio Kontsortzioko Gobernu Batzordeari, onartua izan dadin.

² “Inguru irekia” terminoa ez dagokio kaleari agiri honetan, komunitateko esparruari baizik (instituzionalizazio / esparru itxiei kontrajarrita).

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Kontsortzioaren Inguru Irekiko Hezkuntzako Planak hezkuntza formal edo ez formalaren izaeraz esku hartzea bultzatu nahi du, eta esparru lokalean heziketan jarduten duten eragileek, hain zuzen, burutu ahal izango dute.

Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren bidez, izaera orekatzailea duen eta komunitateko gizarte zerbitzuetatik egiten den hezkuntzako eskuartzea indartu nahi dugu, eta halaber, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen gizarteratze lana ere, lan horien erantzukizuna maila lokaleko beste zerbitzu sistema batzuek ere badutela iritzita, arrisku egoerako adingabe eta gazteekin ari diren kaleko hezitzaileekin hasi³ eta komunitateko gizarte zerbitzuetan bukatuta.

Horrez gain, modu batera edo bestera komunitateko gizarte zerbitzuekin lotura duten profesionalek eta boluntarioek (hezitzaileek, gizarte laguntzaileek, familia hezitzaile eta terapeutek, etxek etxeko laguntzaileek, gizarte boluntarioek) arrisku egoeran dauden adingabe, gazte, eta adingabeak zein gazteak dituzten familiekin esku hartzea kontuan hartu da.

Horrela bada, hezkuntzako eta gizarte laneko estrategiak garatzen ditu, eta horregatik diogu gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko programa dela.

Inguru Irekiko Hezkuntzako Plana zeharkako plan gisa sortu da, hau da departamentuen eta erakundeen arteko plan gisa, eta bereziki maila lokaleko arreta sistema guztietan⁴ (zerbitzu pertsonalak: hezkuntza, osasuna, kultura; gizarte zerbitzuak; lanbide/prestakuntza zerbitzuak, e.

a.) hezkuntzan ari diren eragileek (profesionalek, boluntarioek, eta abarrek) arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiekin hezkuntzan esku hartzea koordinatua izan dadin sustatu nahi du.

Beraz, Inguru Irekiko Hezkuntzako Planak bere barne hartzen ditu kaleko hezitzaileek esku hartzea, arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familien inguruan esku hartzen duten komunitateko gizarte zerbitzuei era batera edo bestera lotutako eragileen hezkuntzako eskuartzea, eta baita esparru lokalean arreta sistema guztietako hezkuntzako eragileek esku hartzea ere.

Plana zeharkakoa izatea sistemen arteko lankidetzaz sustatu, bultzatu eta indartu nahi duen eta erakundeen arteko entitatea izan nahi duen Kontsortzioaren izaerari eta helburuari zor zaie.

Horrela, bada, zeharkakoa eta nagusiki hezkuntzakoa delako izendatu dugu Inguru Irekiko Hezkuntzako Plana.

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa, bestalde, komunitateko gizarte zerbitzuek bultzatutako kaleko hezitzaileen lanaren inguruan aritu da bereziki.

³ Kaleko hezitzaileak, zerbitzu komunitarioen barruan, zerbitzu horietan ohikoak diren lau programetan zeharkako eran esku hartzen du eta, beraz, esku hartzeko estrategiez gain, zerbitzuak ere ematen ditu hurrengo alorretan: hezkuntza, informazio eta orientazioan, bitartekotza, baliabideen sorkuntza eta egokitzapenean, komunitatearen sensibilizazioan, boluntarioen sustapenean. Kaleko hezitzaileek esku hartzea, hortaz, hezkuntzaren arloan gauzatzen da funtsean, baina ez horretan bakarrik.

Kaleko hezitzaileen ezaugarria kalean egotea da, komunitateko beste inguru zabalago batzuetan ere esku hartzen duen arren (inguru irekia). Kale hezitzaileek beste alor batzuetan lan egin dezakete, nekazal inguruan edo kalea garrantzitsua ez den herrietan.

⁴ Arreta sistema arreta alorrean diharduten erakunde publikoek eta pribatuak daukatena da.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Kaleko hezitzaileek egindako lan hori aintzat hartu dugu, hain zuzen, programa eredua zein aurkezten dugun plangintza sistema egiteko.

Hala eta guztiz ere, Programa Eredua zein plangintza sistema pixkanaka zabaldu beharko lirateke, modu batera edo bestera komunitateko gizarte zerbitzuei lotutako profesionalek eta boluntarioek arrisku egoeran dauden adingabeekin, gazteekin eta familiekin egindako lanaren arabera.

Gure ikuspuntutik, dena den, hori berehala egin beharreko lana litzateke, komunitateko gizarte zerbitzuei dagokien esku hartzearen diseinu globalaren barruan.

Aurkezten ditugun programa eredua eta plangintza sistema beste ekarpen bat izan daitezen nahi dugu, eta, halaber, presazkotzat jotzen dugun diseinu zabalago horretan sar daitezen ere.

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa herrialde historiko osora –herrietara edo eskualdeetara- zabaltzea, behin betiko finkatzea eta, erakundeen barruan, Gizartekintzan kokatzea planteatzen ari gara jadanik.

Nolanahi ere, Programa Kontsortzioaren Inguru Irekiko Hezkuntzako Planaren barruan mantenduko da, Planak hartzen dituen bestelako programa eta proiektuekin batera (tratu txarra hautematea eta konponbideari ekitea, gutxiengo etnikoekin lan egitea, e. a.)

Behin kaleko hezitzailearen figura sendotu ondoren, ondokoa ere lortu nahi dugu:

- Indartzea kaleko hezitzaileek komunitateko gizarte zerbitzuen barruan lan egitea –zehazki gizarte laneko unitateetan– beren eginkizunen arabera; horrela bada, egokia deritzogu hasiera batean gizarte laneko unitate bakoitzean gutxienez kaleko hezitzaile bat egotea.
- Kontsortziotik arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteei zuzendutako eskuartzea maila lokalean bultzatzea, halaber erakundeen arteko izaerakoa izatea eta, ildo horretan, arreta sistemen artean lankidetzat sustatzea eta, azkenik, Inguru Irekiko Hezkuntzako Planaren barruan programa eredu berriak garatzea.
- Erakunde, entitate eta hezkuntza formal eta ez formaleko (eskola, prestakuntza okupazionalako ikastetxeak, gizarte eta hezkuntzako baliabideak edo baliabide soziokulturalak, osasun heziketako programak, e. a.) programen arteko lankidetzat sustatzeari dagokionez, eta Heziketa Konpentsatorioko Kontsortzioaren izaera kontuan hartuta, hurrengo helburuak lortu nahi ditugu, epe labur edo ertainean:
 - Hautemateko eta deribatze mekanismoak antolatzea maila lokaleko arreta sistema guztien artean (tratu txarrak eta umeen abandonua hautemateko Irunen garatu den programa pilotua zabaldua eta orokorrago bihurtuta).
 - Sendotzea arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteekin lan egiteko estrategiei buruzko erabakiak, hezkuntzakoei buruzkoak bereziki, elkarren artean hartzea (sistemen artean).
 - Proiektuak lankidetzan garatzea.
 - E. a.
- Inguru Irekiko Hezkuntzako Planaren barruan programa pilotu berriak sustatzeko helburuak, bestalde, hauek lirateke:

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Hezkuntza eta kultura sistemetatik, biztanle guztiei zuzendutako eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteei egokitutako gizarte eta hezkuntzako eskuartzea garatzea.
- Komunitateko gizarte zerbitzuetatik Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programak gaur egun behar bezala hartu ezin dituen adin taldeetan esku hartzea bultzatzea (arreta goiztiarreko programa eta proiektuak, eta kaleko hezitzaileek esku hartzea, 11 urtetik beherako eta 17 urtetik gorakoekin, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren barruan).
- Beste zerbitzu sistema batzuetako hezkuntzako programak egiteko elkarlanean aritzea.
- E. a.

Bestalde, hau da epe luzean lortu nahi dugun helburua: maila lokalean, hezkuntzakoa soilik izango ez den haurrentzako eta gazteentzako arreta sarea garatzea, eta sare horrek arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak hartzeko gaitasuna izatea, beti ere sistemen arteko lankidetzak xumeekin hasita.

Helburu hori udaletako gazteriaren departamentuei dagokie, departamentu horiek dauden kasuetan. Kontsortzioak hezkuntza formala eta ez formalaren sistema eta baliabideetan eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen kolektiboan dihardu, baina gazte departamentuekin elkarlanean aritu beharko luke zabalagoa den helburu hori lortzeko, edo departamentuok jadanik ez daudenean, haien lana egin ahal izateko.

Adingabe eta gazteekin esku hartzeak zeharkako izaera dauka, eta hori mesedegarria izan daiteke herrietan zerbitzuak antolatzen hasteko.

1.3 Programa eredia eta planifikatze sistema egiteko prozesu jarraitua.

Jarraian aurkezten ditugun Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa eredia eta planifikatze sistema (programazioa eta ebaluaketa) programa egin dutenek aztertuak izan dira, hainbat lan eta prestakuntzako bileratan.

Prestakuntzako bilera eta jardunaldi horietan kaleko hezitzaile eta udalerri mailako / maila lokaleko programaren arduradun guztiek, eta Kontsortzioko koordinatzaileak, teknikariek eta gerenteak parte hartu dute.

Programaren planifikatze sistema osatzen duten tresna gehienak programa ezartzean eskarmentu handiena duten herrietan erabili dira dagoeneko.

Hau da udalerri guztiek egin dutena:

- Azken ikasturteko txostena⁵ eta programaren txostenen laburpena, programak herrian ezarrita daraman aldia kontuan hartuta.

⁵ Ebaluaketa zentzu hertsian egiteko adierazle sistemarik ez zegoenez, “txosten” laburpena egin zen. Gaur egun Programak badauka ebaluatze tresna bat, plangintza sistemarekin aurkezten dena. Txostenak egiteko bazegoen gidoi bat, urtebetekoa zena, eta hobetu egin zen plangintza sistema berria ezartzeko.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Kontsortzioaren programan partehartzeko eskaera aurkeztu dute, adierazle sistemaren barruan dauden maila lokaleko adierazleak, eta baita estrategia analisiaren beste elementu batzuk ere, (inguruaren analisia eta antolaketaren analisia) kontuan hartuta.

Programan luzeen jardun duten herriek (Andoain, Pasaia eta Zumarraga) eta programa berriki hartu dutenek (Billabona eta Hernani) komunitatearen azterketa egin dute jadanik eta, horretarako, diseinatutako adierazle sistema erabili dute.

Programa eredua egiteko, plangintza tresna gisa, programa eredua bera, programaren fitxa teknikoa, prozesuen araberrako gestio tresnak eta lanpostuak aztertzeke tresnak erabili dira.

Une honetan adierazleen sistema eta programazio fitxak erabiltzen hasiak dira banakoarekin, taldearekin eta komunitatearekin esku hartzen denean.

Edonola ere, Programa Eredua eta planifikatze sistema etengabe eguneratu behar dira, programak berak daukan bilakaeraren arabera, eta programan dihardutenek esperientziak ikasten dutena aintzat hartuta; halaber, estandar bihurtzen diren eta nahikoa adostasuna daukaten kontzeptu eta metodologia elementuak ere kontuan hartuta.